



Pil-pilean

TONIKOIA Soraluzeko hilabetekaria
2025eko ekaina · 423 alea



KULTUR EKITALDIAK
AZTERGAI
GERO ETA GEHIAGO
HIRIETAN ETA HANDIAK



PIL-PILEAN 423

2025eko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:

Gaizka Azkarate.

Aurkibidea

- | | | | |
|----|----------------------|--|--------------------------------------|
| 4 | Bote prontuan | Lara Ballesteros | IRITZIA |
| 6 | Begira | Triatoloia | 3 Neuretik |
| 8 | Zer berri | Aktualitateko albisteak | <i>Herriak erabaki</i> |
| 16 | Erreportajea | Kultur eskaintzaren erretratua | 14 Gutunak |
| | | | Idoia Alberdi Zarata |
| 22 | Kirola | Futbito txapelketa | 14 Komiki tira |
| 24 | Kultura | San Andresko jaiak | 15 Hausnarketa |
| 26 | Zerbitzuak | Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | Udal Gobernuaren agintaldiaren erdia |
| | | | 15 Puntua |
| | | | Enara Agirre Arrizabalaga 55.000 |



**Pil-plean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-plean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilplean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilplean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilplean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilplean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-plean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**SORALUZEKO
UDALA**

Euskal Herriak erabaki



GOTZON ELIZBURU

Ekainaren 7an Gure Eskuk deituta milaka izan ginen Bilbon Euskal Herriaren nazio izaera, burujabetza eta erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen. Zentrala eta oinarritzkoa den aldarrikapen hori berriz ere agenda politikoaren lehen lerroan jarri zuen mobilizazioak. Oinarritzkoa diot, printzipio demokratikoa delako.

Irailaren 27an 50 urte beteko dira frankismo agonikoak Txiki eta Otaegi Etakideak fusilatu zituenetik.

Diktadorearen azken hurbilak, aldaketarako espektatiba areagotu zuen indar abertzale eta iraultzaileen artean. Erregimenak, urduri, errepresioa areagotu zuen eta fusilamenduekin lezioa eman nahi izan zuen. Euskal Herrian zein Europan izan zuen erantzuna izugarria izan zen.

1975eko urriaren 1ean, Madrilgo Plaza de Orienten ekitaldia antolatuta zuen erregimenak frankismoaren indar erakustaldia eman eta fusilamenduak babesteko. Balkoian Franco, Juan Carlos Borboikoa eta Sofia bere emaztea elkarrekin azaldu ziren. Azaroaren 20an hil zen Patxi zaharra ohean, azaroaren 22an izendatu zuten Juan Carlos I erregea estatu buru. Francok “dena lotuta eta ondo lotuta” utzi zuen. Erregeak berak aitortu duenez, azken arnasetan eskutik heldu eta gauza bakarra esan zion: “la unidad de España”.

Frankismoarekiko haustura demokratikoa ala erreforma izan zen garai hartako eztabaida politiko nagusia. Alderdi eta sindikatu gehienek hausturarako aukera baztertu eta erreformaren bidean sartu ziren. Ezker abertzalea izan zen espainiar trantsizio deituan, kontsentsutik kanpo geratu zen eragile nagusia. Orduan hartu ziren erabaki politikoak ezagutzea ezinbestekoa da egungo egoera politikoak ulertzeko. 1978ko Konstituzioak Euskal Herriari nazio izaera ukatu zion, ejertzitoa ezarri zuen Espainiaren Batasunaren berme nagusi gisa eta gaztelania bakarrik inposatu zuen hizkuntza ofizial gisa. Euskal Herriaren lurralde zatiketa arau bilakatu zuten eta autodeterminazio eskubidea ukatu ziguten. Estatutuekin burujabetza maila kamuts bat lortu zen eta estatu egitura batzuk eraikitzea ahalbidetu digu horrek. Baina eskumenen desgastea etengabekoa izan da. Hau ez diot nik, Eusko Jaurlaritzak berak esan du azterketa sakon baten bidez.

Mundu ero globalizatu honetan, norberak bere etorkizunaz erabakitzeko eskumenak izatea ez da soluzio definitiboa izango beharbada, baina bai funtsezkoa Euskal Herriak dituen erronkei modu optimoan erantzuteko. Eta gogoratu; 65 urte baino gutxiago ditugun biztanleok, ezin izan genuen egungo marko politiko-instituzional hau bozkatu. Bada garaia Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko.

**1978KO
KONSTITUZIOAK
EUSKAL HERRIARI
NAZIO IZAERA UKATU
EGIN ZION**

“Erosketa bakoitza herria bizirik mantentzeko ekarpen bat da”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: OIER LARREATEGI

Lara Ballesteros (Soraluze, 1998) Soraluze Kooperatiba Elkarte kudeatzailea da 2023tik. Kudeatzaile moduan hasi zenean, kooperatibaren egoera latza zen eta azken batzarrean esan zutenez, are latzagoa da orain.

Kooperatiba ixteko arriskua erreala da?

Benetakoa da egoerak hobera egiten ez badu. Funtsezkoa da larritasunaz jabetzea: denda aurrera ateratzeko, ezinbestekoa da herritarren babesa eta inplikazioa. Arduradun naizen aldetik, eta lankideekin batera, gure onena ematen ari gara. Baina gure ahaleginak ez dira nahikoa salmentek ez badute laguntzen. Bestalde, denda hau ez da saltoki soil bat. Herriarentzako zerbitzu bat da, eta lanpostu bat ere bai. Itxiko balitz, herritarrok oinarrizko zerbitzu bat galduko genuke, eta guk gure ogibidea. Horregatik jarraitzen dugu egunero borrokan, baina gure lana baloratua izatea eta arriskuan zer dagoen ulertzea behar dugu.

55.560,29ko galerak jakinarazi zenituzten batzarrean; handiak dira.

2023an 55.560 euroko galera izan genuen, hainbat faktoreren ondorioz: langileen kostuak -2025ean amaitu egingo dira aurreko urteetako langileen gastu batzuk-, igogailuaren eta instalazioen mantenua, hornidurak eta beste hainbat gastu finko. Horiek ez dira gutxitzen salmentak jaitsi arren. Gainera, erosketen ohiturak aldatu eta supermerkatu handiek duten eraginak nabarmenki kaltetu gaitu. Ulertzen dugu askok erosketak leku bakarrean egin nahi izatea erosotasunagatik. Ez dugu eskatzen dena hemen erostea, baizik eta erosketen zati bat tokiko dendetan egitea. Hori funtsezkoa da denda eta beste negozio txikiak bizirik mantentzeko. Bestela, arriskuan jarriko dugu herrian oinarrizko zerbitzuak edukitzea.

Non ikusten duzue irabazteko aukerarik handiena?

Orain urte batzuk Co-alimentekin bat egitea erabaki genuen. Horri esker, prezioak jaistea eta

marka zuri gehiago eskaintzea lortu dugu. Horrek bezero gehiago erakartzen lagundu eta denda irekita mantentzea ahalbidetu du. Elikagaietan irabazi-marjina oso txikia da; horregatik gure indarra beste ataletan jartzen ari gara: jantziak, harategia eta fruta. Jantzieta eskaintza zabaldu dugu, adin eta gustu guztietarako. Bezeroek nahi duten modelo, tamaina edo kolorea ez badugu, bereziki eskuratzea ere eskaintzen dugu.

Supermerkatu handiek ez bezala, gertutasuna eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu.

Batzarrean esan zenez, Eroskirenak baino prezio merkeagoak dituzue askotan; hala ere, jende gehiago dabil Eroskin. Zein arrazoi ikusten diozue horri?

Bezero askok esan digute gure prezioak supermerkatu handienak baino hobeak direla. Horrek erakusten du prezio lehiakorrek mantentzeko lan ona egiten ari garela, eta horixe baloratzen dute askok. Hala ere, supermerkatu handiek bolumen handiagoa eta publizitate handiagoa dute, eta horrek bezero gehiago eramaten ditu hara. Lehiakideek ordutegi zabalagoa eta badute. Guk ere ordutegia handitzeko aukera aztertu dugu. Hala ere, gure langile kopuruarekin ezinezkoa da. Gainera, kalitatezko eta gertuko zerbitzua galduko genuke.

Beste zerbait nahi baduzu esan...

Mezu argi bat helarazi nahi diegu herritarrei —gazteei eta helduei—: erosketak herrian egitea ez da ohitura hutsa, baizik eta konpromiso bat da. Erosketa bakoitza gure herria bizirik mantentzeko ekarpen bat da. Tokiko taberna eta dendak ixtea nahi ez badugu, bertan kontsumitu behar dugu. Hemen gastatzen dugun euro bakoitzak gure lanpostuak eta komunitatearen etorkizuna bermatzen laguntzen du. Oraindik garaiz gaude. Denda hau aurrera atera daiteke. Baina ez da posible izango herritarren babesik gabe. Gure konpromisoa eta lana ez dira faltako. Baina ezin dugu bakarrik egin. Herriaren denda izaten jarraitu nahi badugu, elkarrekin egin behar dugu bidea.





"Erabaki ona izan zen herrian egitea"

ARGAZKIA ETA TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Ekainaren 14an erdiguneak poza ematen zuen horrenbeste gazte bertan ikusita. Lau urtean kanpoan egiten ibili ondoren, Triatoloia ekarri zuten herrira eta goizean hasi eta pare bat orduraz ibili ziren nor baino nor iaioago 48 gazte, igerian, bizikletan eta korrika, Soraluzeko igerilekuan hasi, Osintxutik buelta eman eta Soraluzeko zubian bukatu zen zirkuitua eginez. Esan dutenez, "oso gustura" egon ziren eta dena "sustu gabe" irten zen. "Kotxe pare bat traban egon ziren baina arazorik ez". Triatoloia herrian egitearena, berriz, "erabaki on" bat izan zen, "kriston giroa egon zen-eta. Ea hurrengo urtean aukera dagoen baita".



"Ezusteko positiboena Olaldeak garatzeko lortutako 3,3 milioi euroak izan dira"

UNAI LARREATEGI ALKATEA

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

EH Bilduren Udal Gobernuak agintaldian daramatzen bi urteen balorazio positiboa egin du Unai Larreategi Azurmendi alkateak. Azpimarratu du "oso pozik" daudela agintaldirako zeuzkaten "erronken betetze mailarekin" eta "Soraluze bizigarriagoa eraikitzen jarraituko" dutela.

Zelan baloratzen duzue agintaldiaren erdira arteko ibilbidea?

Orain arte egindakoak asetzen gaitu. Soraluze bizigarriagoa eraiki nahi genuela esanaz aurkeztu ginen hauteskondeetara eta, gure aurreikuspenari jarraituta, bagoaz eremu ezberdinetako asmoei erantzuten. Bagenekien ez zela erreza izango, baina bi urte hauetan aurrerapauso nabarmenak eman direlakoan gaude. Egia da ez dela erreza izaten ari urteetako inertziak aldatzea, baina anbizioz jokatzeko jarraituko dugu.

Zer nabarmenduko zenukete?

Agintaldi erdiko balorazioa egin berri dugu gobernu taldean. Udal aldizkari bat aterako dugu uda ostean guzti hori herritarrekin

partekatzeko, baina gu oso pozik gaude agintaldirako geneuzkan erronken betetze mailarekin.

Herritar eta eragileekin elkarlanean egindakoak izan dira horietako asko, dinamika berri aberasgarriak ere sortu direlarik (ahalduntze eskola, JendartEkin, Nagusien Kontseilua, "Katamarran" 0-4 urteko gunea...).

2015etik oposizioan egon ondoren, zelan ikusten dira gauzak gobernutik?

Oposizioan utzi gintuzten garai horretan etengabe ekarpen eraikitzaileak egiten ahalegindu ginen. Badakigu gauzak esatea errazagoa dela egitea baino, eta norberak nahiko lukeena baino denbora eta errekurso gehiago behar izaten dela askotan proiektuak gauzatzeko. Baina hori bagenekien hauteskondeetara aurkeztu ginenean.

Aurreikusitakotik doa dena ala izan duzue ezustekoren bat?

Ezusteko positiboena Olaldearen garapenerako lortu ditugun 3,375 milioi euroak izan dira. Olaldeako proiektua aktibatu ahal izateko errekurtsuak lortzea jarri

genuen agintaldiko erronka handi moduan. Ba lortu dugu helburu hori betetzea. Orain, proiektua exekutatzeke pausoak ematen hasiko gara. Lan konplexua izango da, izerdi pixka bat botatzea eskatuko digu, baina gogoz gaude lan horretarako.

EAJK zein PSE-EEK kritikatu dute proiektu propiorik garatu ez izana. Zergatik ezin izan dituzue iragarritako proiektuak gauzatu oraindik?

Errentetatik bizitzen dihardugula esaten dihardute etengabe. Beraiek dabiltza akaso errentetatik bizi nahian, etengabe atzera begira. 8 urtean egon ziren alkatetzan eta ibilbide horren bukaeran lortu ziren herrirako hainbat inbertsionarako diru konpromisoak. Inbertsio horien exekuzioa gu gabiltza kudeatzen, eta uste dugu hor ere ari garela demostratzen proiektu potoloak ondo kudeatzeko gaitasuna dugula (Ezozibideko hobekuntzak, Gabolatseko zubia eta SAPAko obra adibide).

Iragarritako proiektuak ez ditugula gauzatu diote



Unai Larreategi alkatea bere bulegoan, eguaztenean.

"OLALDEARAKOA LORTUTA, ORAIN SAPAKO EREMUAREKIN JARRIKO GARA BURUBELARRI"

Bizikidetza zaintzea ere lehentasunezko gaia izango da aurrerantzean. Bestelako instituzioekin elkarlanean ahaleginduko gara lapurreta eta bestelako jarrera desegokiak ahalik eta egokien kudeatzean. **Zer eskatuko zeniekete oposizioko alderdiei?**

Kritikatzeko beharra ikusten dutenean kritikatzeko konplexu barik. Baina Soraluzek etorkizun hobe bat izan dezan guztiok elkarrekin egin behar dugula bultzatzen. Guztion lanaren premia dauka gure herriak eta hortik despistatu gabe nahiko genituzke oposizioko alderdiak. **Besterik nahi duzue gehitu...**

Oso eskertuak gaude herritarrekin. Alde batetik pazientziar ari direlako erantzuten herrian ditugun obrek sortzen dituzten arazoan aurrean eta bestetik martxan jarri ditugun proiektu ezberdinetan parte hartze handia ari delako izaten. Aurrerantzean ere eskertuko genuke modu horretan jarraitzea. Gure aldetik ez dugu atsedetik hartuko, Soraluze bizigarriagoa eraikitzen jarraituko dugu.

oposiziotik, hirigintza proiektuez dihardute soilik. Egon daitezela lasai, beste hainbat arloetan dagoeneko abiatu ditugun proiektuez gain, hirigintzan ere hainbat eraldaketa garatuko ditugu-eta datozen bi urteetan.

Diru kontuak ere mahai gaineratu dituzte Udal Gobernuaren kudeaketa kritikatzeke... Zein da zuen irakurketa alde horretatik?

Udal aurrekontuaren exekuzioarekin dabilta azkenaldian tematuta. EAJk exekuzio maila baxua daukagula esaten dihardu eta PSE-EEK aldiz exekuzio maila handitu egin dugula. Mezu kontraesankorrek direla agerikoa da, beraz bakarren bat ez dabil egia osoa esaten. Bazterrak nahastu nahian dabilta, baina egiten dihardugun kudeaketa

ekonomikoak markatutako helburuei arduraz eta eraginkortasunez erantzuten diolakoan gaude.

Legaldia bukatzeko falta diren bi urteetan, zeri emango diozue lehentasuna?

Proiektu estrategikoei dagokienez, Olaldea desataskatzea zen agintaldiko erronka. Helburu hori lortuta, orain SAPAKO eremuarekin jarriko gara buru-belarri. Ez da erraza izango, baina anbizioz jokatzeko jarraituko dugu.

Egunerokoan herria txukuntzeko helburuarekin jarraituko dugu. Agintaldi hasieran esan genuen urteetan egin gabeko mantenu lanak ezingo genituela egun batetik bestera egin, hobekuntza nabariak egin ditugulakoan gaude, baina oraindik badago nahi beste lan egiteko.

"Hitzetatik ekintzetara igarotzea eskatuko nieke"

IKER ALDAZABAL EAJ-PNVKO BOZERAMALEA

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

EH Bilduren Udal Gobernuaren bi urteko kudeaketaren balorazio oso kritikoa egin du oposizioko buru Iker Aldazabal jeltzaleak.

Esan duzue ez duzuela kudeaketa politiko eskasagorik ikusi...

2024ko aurrekontuaren exekuzioaren datuak hauek dira: %73ko exekuzio orokorra eta inbertsioetan %43a. Alkateak 2024ko aurrekontuaren berri ematean, otsaileko Pil-pileanen, zioen gestio ona zela aurrekontua ahalik eta gehien exekutatzeko eta ez dela normala urtea demaseko erremamentearekin bukatzea, horrek esan nahi zuelako diru hori zerbaitetarako zegoela pentsatuta eta ez dela erabili. Erremamentea 1.349.000 izan da, aurreko urten baino 47.807 euro gehiago. Ez dute bete esan zutena. Gestio ona exekuzioaren %90etik gorakoa bada, %73ko exekuzio orokorra eta inbertsioetan %43koa zer da, gestio txarra?

Zer ikusten duzue lehentasunezko?

2024ko aurrekontuaren balantzea egin genuenean, EH Bilduk egingo zituen eta urte eta erdi pasatu ondoren egin ez dituen proiektuen zerrendaren berri eman genuen. Honako hauek, besteak beste: Kalebarren



Iker Aldazabal.

24ko eraikina eraistea gehi horrek dakarrena: ibaia plazarekin lotzeko harmailak; kiroldegiko padel pista estaltzea; familietan esku hartzeko eta kale-hezitzaile kontratua martxan jartzea; futbol zelaiko aldagelen proiektua idaztea; kontsumitzaileentzat bulegoa... Kontuan izanda EH Bilduk gehiengo osoa duela eta alkatea eta alkateordea liberatuta daudela.

Eta eutsi beharrekoak?

Hainbat ekarpen egin ditugu: SAParen bigarren fasea gauzatzea, osorik ez bada, behintzat eraikinaren alboak itxiko dituen, han korronte

handia dago. Gabolatseko zubiko obrak bukatu ondoren SAPA alboko adokinezko kalea zahar berritzea. Frontoi 5 etxera irisgarritasuna bermatzea arrapala bitartez, Calonge atzetik. Aparkaleku faltaren aurrean, azterketa egitea jakiteko zenbat ibilgailu eta zenbat aparkaleku dauden eta horren arabera, azter dezatela Erregetxeko lur azpiko aparkalekuaren proiektua. Oلابarrenako zubiaren proiektua idazteko partida. Bidegorri alboan aisialdi gune berria, Linazibar baino lehenagoko errebueltan; gainera, aukera legoke bertan komun publiko bat ipintzeko.

2015etik 2023ra alkate izanda, zelan ikusten dira gauzak oposiziotik?

Kezka handiz. Bi urte igarota, Udal Gobernuak ez da gai erabakiak hartzeko, ezta proiektu eta inizatiba berriak martxan jartzeko ere. Non gelditu da hauteskunde kanpainan aldarrikatzen zuten *Piztu Soraluze?* Ez dugu ezer piztu denaren zantzurik ikusi.

Ezozibideko zaharberritze lanak, Gabolatseko zubi berria, SAPAko gune estalia, Plaentxi Ikastetxeko igogailu berria, Pascual Churrucako etxeak, Olaldeko egitasmoa... aurreko legealdian landu, kudeatu eta finantzazioa lortutako proiektuak dira. Bi urteren ondoren zein ekarpen egin dio EH Bilduko Udal Gobernuak Soraluzeko herriari? EH Bilduren diskurtso teorikoak talka egiten du eguneroko kudeaketan hartu behar diren erabakiekin, eta ondorioa herriak pairatzen duen Udal Gobernuaren kudeaketa eza da. Gauzak hausnartzeko, aztertzeko eta birpentsatzeko bi urte luze izan dituzte. Hitzetatik ekintzetara igaro daitezela eskatuko nieke.

"Ez dago EH Bilduren zigilua daraman proiekturik abian"

PATRICIA BORINAGA PSE-EEKO BOZERAMALEA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: PSE-EE

Oposizioiko PSE-EEK "kontinuistatzat" jo du EH Bilduren Udal Gobernuaren kudeaketa eta aurreko agintaldiko "errentetatik" bizi dela dio.

Zergatik diozue hori?

Herrian ez dago proiektu bakar bat bera ere EH Bilduren Udal Gobernuaren zigilu propioa daramanik. Martxan dagoen guztia, bukatzeko edo hasteko, aurreko agintaldian itxita proiektuetatik dator, beste erakunde batzuekin lortutako negoziazioei eta finantzaketa-akordioei esker lortutakoak. Adibidez, Ezozibideko obrak, Gabolatseko zubia, Pascual Churruacan eraikiko diren etxebizitzak, Kalebarren 24ko etxea botatzea eta Plaza Zaharrarekin lotura, Plaentxi Eskolako igogailua, KLB8ko erabilera anitzeko lokala, Tokiko Komunitate Energetikoa... Olaldearen etorkizuneko garapenak ere aurreko legegintzaldian du jatorria: 2022an, Eusko Legebiltzarrak Debabarrena aurre egiteko jarduketa-eremu izendatu zuen, eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundiek eskualdeko plan estrategikoa egin zuten.



Patricia Borinaga.

Zer egin beharko luke gobernuak lehentasunez?

Gobernu Taldea, bi pertsona jardun osora izanda, gehiago inplikatu zitekeen aurreko agintaldian alderdi guztien adostasuna zuten eta herriarentzat inportanteak diren proiektuetan aurrera egiteko. Adibidez, Maltzaga eta Soraluze arteko bidegorria eta Mendiolako sarbidea hobetzea.

Zer eskatuko zenioke Udal Gobernuari?

PSE-EEK ez dio EH Bilduri soraluzetarrek eskatzen diotena baino gehiago eskatuko. Hori ezin hobeto islatzen da, adibidez, aurtun egin duten Soraluzeko etxebizitzaren azterlanean. Besteak beste, honako jarduerak bultzatzea

eskatuko genuke: herriarrei etxebizitza duin bat eskuratzeko aukera erraztea, arrazoizko prezioetan; hori bultzatzeko, Soraluze: tenkatutako eremu deklaratzeko, lurzoru lortzea eta Eusko Jaurlaritzari lagatzea alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeke, e.a. Eskatuko genuke, baita ere, auzo eta zona degradatuen birgaitzea eta berroneratzea bultzatzea (Ezozibidea moduan) eta lehentasunak guztien artean adostu ondoren, Irisgarritasun Planean eta Espazio Publikoak Berrantolatzeke Planean definitutako jarduerak egitea, genero-ikuspegia txertatuta, Soraluzeko irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko.

2015etik 2023ra gobernuan egon ondoren, zelan bizi duzue agintaldia oposiziotik?

Rol aldaketa onartzea dakar, herriarrek hala erabakita 2023an. Rol-aldaketa hori, bestalde, ez zaigu arrotz egiten, lehenago ere jardun izan dugulako. Eta orain, lehen moduan, lehentasuna oposizio eraikitzaile bat egitea da, konfrontazio antzutik eta zarata egitea helburu duen oposiziotik ahalik eta urrunen, Soraluzeko bizilagun guztien bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten proiektuak eta ekintzak abian jartzea lagunduko duena.

Ohiturazkoak berriekin batera

JAIETAKO EGITARAUA UZTAILAREN 10-11N BANATUKO DUTE ETXEZ ETXE

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA PIL-PILEAN

Hilabete baino gutxiago falta da herriko jai nagusietarako. Eragileek prest dituzte ekitaldiak eta haien berri emango da etxerik etxe uztailaren 10-11ko asteburuan banatuko den egitarauaren bitartez.

Aurten, berritasun modura, Mesedeetako jaietan izango denaren berri ere ekarriko du egitarau orokorrak.

Musika eskolakoak pregoilari

Jai nagusiei dagokienez, berriz, oro har, uztartuko dituzte ohiturazkoak diren ekitaldiak zenbait berritasunekin.

Hasteko, aurtengo pregoia 35. urteurrena bete duen Soraluzeko Musika Eskolaren eskutik etorriko da, kanoikadaren ondotik, jakina. Eta oro har, adin guztiendako eskaintza batuko dute uztailaren 24an hasi eta uztailaren 27ko arratsaldean bukatuko diren jaiek.

Ohi denez, eskaintza horren baitan, musikak tarte zabala hartuko du, nagusiei, helduei, gazteei zein umeei zuzenduta.

Lehen egunean, adibidez, Janus Lester pop musikari ezaguna izango da gonbidatu. Uztailaren 25ean, berriz, mariatxiak izango dira gauean plazan, Los Tenampas nafarren eskutik eta egun berean baina arratsalde-iluntzean, *Golazen* telesaileko lagunek Soraluzeko



Danborrada SAPAn, iaz.

umeak kantuan eta dantzan ipiniko dituzte karaokearekin.

Uztailaren 26ra iritsita, hor ere bi hitzordu dira aipagarri. Batetik, plazan, Idoia Asurmendi aramaioarra arituko da eta bestetik, zubiko txosnagunean, Belako bizkaitarrek jarriko dute martxa. Jaiak bukatu aurretik, azken eguna emakumeena izango da, batukada feministak hartuko baititu kaleak.

Horrez aparte, eta musikarekin lotuta, beste berritasunetako bat izango da

GAZTEEK BERTSIOEZ OSATU ETA EUREN ERARA EGOKITUTAKO KONTZERTUA EGINGO DUTE

Mendaroko DJ Txola eta Potxola izango direla plazan Oihan Vegaren lekua betetzen. Eta aipagarria da, baita ere, Gaztetxea musikazaleendako beste eszenatoki bat izango dela, besteak beste, punk kontzertuak antolatu baitituzte bertan.

Gazteena txosnagunean

Osterantzean, nabarmentzeko modukoa da gazteek herri-jaialdia egingo dutela txosnagunean. Orain dela bi urte egin zuten moduan, kantu ezagunen bertsioez osatutako eta euren erara egokitutako errepertorioa eskainiko du herritar musikari talde batek zubiko txosnagunean. Orain bi urte Caribe Mix izenarekin taularatu zuten ikuskizuna eta egundoko arrakasta izan zuen herritarren artean.

Nagusien danborrada

Herritarrak eta musika izango dira, baita ere, protagonista Nagusien Danborradan. Haiek hasita daude entsegutan. Entseguen bigarren astea izan dute honako hau eta martitzenero eta eguenero, 19:30ean entseatzeko segituko dute. Uztailaren 22an izango da entsegu orokorra. Besteak beste, aurten lan gehiagarria hartu dute, berritasunen artean Domentx Uzinek konposatutako *Atxolin* biribilketa interpretatuko baitute *Artillero* eta bestelako pieza tradizionalekin batera.

Zortzi konpainia irtengo dira desfilean, barrileroak, gremioetakoak, danbor-joleak, sukaldariak... Lagun berriak gehitu zaizkie gainera, ze iaz gremioetan ibili ziren hainbat jotzera apuntatu dira eta kide hasiberriak ere sartu dira. Horrez aparte, aurtengo kantinerak izango dira Miren Osinaga eta Aritz Ruiz eta lau mikelete izango dira, Frantziska Iraolagoitiarekin eta Sergio Zabalarekin batera Lierni Elizburu eta Eneko Alvarez ere ibiliko baitira ikasten, lehen bien errelebo izateko. Osterantzean, guztien zuzendari izango dira Unai Larreategi eta Luis Urizar.

Zezenak, erraldoiak...

Jakina, musikaz apartekoak ere izango dira jaietako egitarauan. Zezenek bi pase izango dituzte,



Janus Lester.



Los Tenampas.

zezen suzkoa ere izango da, Iruñeko erraldoi eta kilikiak etorriko dira, krozean parte hartzeko aukera izango dute txikienei eta iaz estreinatutako tortilla lehiaketan parte hartu

ahal izango dute, berriz, gazteek.

Gastronomia aipatuta, bakailao lehiaketa preziatua ere izango da.

JANUS LESTER, MARIATXIAK, BELAKO... DENETARIKO MUSIKA ESKAINTZA IZANGO DA

Aldizkari berezia

Horren guztiaren berri, esan moduan, uztailaren 10-11n banatuko den egitarauak emango du. Horrez aparte, jaietako protagonistak eta bestelako xehetasun gehiago partekatuko dira uztailaren 18an Pil-pileanek argitaratuko duen aldizkari berezian.

GUTUNAK

Zarata

IDOIA ALBERDI

Ni ez naiz Soraluzen bizi, baiña nere familia bai. Nere haurtzaroa eta nerabezaroa pasa nuen bertako kaleetan jolasten. Maitasun gorroto harremana izan dugu bizitza osoan zehar, eta orain ere sentimentu gazi-gozoek ditzut herriarekiko.

Sentimentuak alde batera utziz eta arrazoi hutsei begira, ez dot ulertzen. Nere gurasoek osasun arazo gero eta larriagoak dituzte. Gero eta txarrago egiten dute lo min handi eta txikiengatik. Nekauta daude egunean zehar ondo deskantsatu ezin dutelako. Aurpegian nekea, begietan ezintasuna, buruan eta bihotzean, haserre, tristura, inpotentzia.

Nik, alaba moduan, nik... ez dot ulertzen. Kristauak izanik, ebangelioa jarraitzen badugu,

ez dut ulertzen lagun urkoa norbera moduan ezin tratatu izana. Ez dut ulertzen kanpai batzuk gauez entzun nahi izanagatik, gaixoen eta edadetuen deskantsu beharra ezin errespetatzea, ezin kontutan hartzea. Soberan dakigu zarata gaur egun kutsadura eta gaixotasun iturri dela. Eta sentitzen dut baiña gaueko ordu txikitan ordulauerdenero kanpai hotsa entzutea zarata da. Pasa ditugun udako gau beroetan gelako lehioa kanpaiengatik ezin ireki izana, zarata da. Eta legeak horrela dio.

Kristauak bagara, ulertu beharko genduke gaixoak eta edadetuak zaindu behar ditugula. Gure herritarron osasuna eta ongizatea zaindu beharko gendukela. Nere gurasoen begietan ikusten dudana sufrimendua, nekea, miña, beste batzuetan ere ikusi

dezakedalako. Nik neuk edo nere familian.

Eta kristok esan zuen, ez nik. Ez opa lagunurkoari niretzat nahi ez dudana. Zaindu lagunurkoa norbera bezala.

Umetan Plaentxiko elizan erakutsi zidaten hauxe, baiña ikusten dut hitzetik ekiñera... tartetxo bat badagoela ezta?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA

UDAKO
ATEAN



HAUSNARKETA

Udal-gobernuaren agintaldia

EH Bilduren udal-gobernuak agintaldiaren erdia bete du. Zer irizten diozu bi urteotan egindako bideari?



**GORKA
ARANA**

"Egin dira gauza berriak: Gabolatseko zubia, estoldetako tapak zigilatzea, margotzeak, sasiak garbitzea... Nik eskatuko nuke Santa Anan etxea eraikitzea, SAPAn zerbait gehiago egitea, igogailuen laguntzen berri ematea, presena argitzea..."



**ALEX
SANDOVAL**

"Alkatearen gestioa oso ona iruditu zait. Asko bultzatzen ditu jaiak eta kirola, gazteei atea zabaltzen die, margotu eta konpondu dituzte gauza asko... Nik eskatuko nioke bultzatzea herrian etxebizitzak egiteko proiektuak, aukera izan dezagun bertan finkatzeko".



**PIEDAD
GALLASTEGI**

"Lehen ondo eta orain ere bai. Ez zait gustatu Gabolatseko zubia hain modernoa izatea eta gustatu zait umeentzako ur parkea. Nere pentsamendua da herri txikietan alkateek ahal duten ondoen egiten dituztela gauzak eta denentzako gustua egitea ez dela erraza".



**MARIA CRISTINA
MAQUEDA**

"Nire erreferentzietako bat iazko jaiak dira eta niri musika eskaintza eta jaiak ez zitzaizkidan gustatu. Gainerakoan, alkatearengana jo izan dudanean ondo atenditu nau eta planteatu nion arazoa konpondu genuen. Eskatuko nioke Loralde txukuntzea".

PUNTUA



**ENARA AGIRRE
ARRIZABALAGA**

55.000

5 5.000 zenbaki biribila da, kopuru handia edo txikia izan daiteke, begiradaren arabera. Baina azken asteetan esanahi berezia hartu du zenbaki honek. Egia esan lerro hauek idazten ditudan bitartean dezentez altuagoa izango da zifra, tamalez.

Zifra biribil hau da Nazio Batuen erakundeak azken asteetan erabili duena da Gazan eraildako pertsonen kopuru bezala, kopuru ofiziala behintzat. 55.000 pertsona baino gehiago izan dira eraildakoak, Gazako herritarrak, eta horietatik 17.400 umeak. Baina hauek zifrak besterik ez dira eta gainera ezin esan zehatzak direnik, izan ere, betiere datu ofizialen arabera, zaurituak 120.000tik gora dira eta desagertuak 14.400 baino gehiago.

Zifra beldugarriak dira benetan eta gatazka gutxitan izan dira umeak hain erasotuak Gazako oraingo genozidioan bezala. Hala ere, badirudi agintariak ez direla gehiegi larritzen datu hauen aurrean, oro har immobilismoa da nagusi eta ez dirudi inork prestutasunik duenik neurririk hartzeko.

Baina hauek zenbakiak baino ez dira, zoritxarrez errealitatea askoz ere ankerragoa baita, XXI mendeko genozidio bat bistaratzen duena. Zenbakiak ez gaitzela itsutu eta izan gaitzezen gai atzean ezkutatzen dutena ikusteko.



Herri txikietan kultura gutxiago eskaintzen da

EITBk eta Tokikom osatzen duten euskarazko tokiko hedabideek abian jarritako *Saretzen* ekimenaren baitan, kultura ekitaldiak aztergai izan dira. Hura osatzeko, Soroluzeko Udaren kultur ekitaldien diagnostikoa zein Gaztelupeko Hotsak zigiluko Ubane Uzini elkarrizketa gehitu dira.

Testua: **Tokikom-EitB eta Ubane Madera.** Argazkiak: **Pil-pilean eta Ubane Madera.**

2024an, 20.000 ekitaldi inguru erregistratu ziren Kulturklik atarian, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako eta lurraldeko kultur programazioa biltzen duen plataforman. Beste era batera esanda: egunean, batez beste, 55 kultur saio izan ziren EAEko udalerrietan. Hala ere, uza emankor horren atzean errealitate konplexuago bat dago: kultura ez da berdin iristen txoko guztietara. Ekitaldi ugari izan arren, lurralde-banaketak agerian uzten ditu sarbidean, aniztasunean eta hurbiltasunean eragina duten egiturazko desberdintasunak.

Hiri-herri handietan

Ekitaldi gehienak udalerri gutxi batzuetan pilatzen dira, jendetsuenetan: hiru hiriburuak –Bilbok, Donostiak eta Gasteizek– ekitaldi guztien %48 hartu zuten, eta urtean 3.000tik gora antolatu zituzten, batez beste. Hiriburuak kenduta, 36 udalerri bakarrik gainditu zituzten 100 ekitaldi-urteko langa.

Horixe ondorioztatzen du Tokikom taldeko hedabideek eta EITBk, *Saretzen* datu-kazetaritza egitasmoaren baitan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kultur ekitaldiei buruz landutako erreportajea.

Gipuzkoan gehien

Halaber, datu horien arabera, Gipuzkoa da dentsitate kultural handiena duen lurraldea: mila biztanleko 11,1 ekitaldi. Atzetik



datoz Araba (9,7) eta Bizkaia (7,5), eta azken horrek izan du ekitaldi bolumen handiena (8.662).

Ekitaldi motari dagokionez, berriz, musika izan da nagusi: 6.342 kontzertu (% 31,8). 4.239 antzerki-emanaldi egin ziren (% 21,3); ikus-entzunezko proiektzioek guztizkoaren % 11,8 hartu zuten; hitzaldiek eta jardunaldiek, % 11,5; erakusketek, % 6,9; eta dantza-emanaldiek, % 4,3. Gainerako jarduerak –azokak, ikastaroak, tailerrak, lehiaketak...– agendaren % 12,5 hartu zuten.

Beraz, EAEko kultura sarea bizia, finkatua eta askotarikoa bada ere, baditu argi-itzalak. Oinarri sendoa dago: ekitaldi andana, jaialdi sare zabala, azpiegitura sendoa eta euskararen aldeko apustu gero eta handiagoa. Baina badira premiazko erronkak ere: eskaintza lurraldez lurralde orekatzea, herri txikiei ikusgarritasuna ematea, jaialdien iraunkortasuna bermatzea eta eskualde guztietan euskararen presentzia indartzea.

"Onak eta askotarikoak"

Soraluzera etorruta, Soraluzeko Udalak 2024an kultur ekitaldien programazioaren diagnostikoa egin zuen, pandemia aurreko bi urteetako zerrendan oinarrituta, horiek direlako "osatuen" dituen datuak. Halaber, salbuespenen bat zein beste kenduta, uste dute datuak ez direla asko "urruntzen gaur egungo dinamikatik".

Udalak jasotako datuen arabera, bi urtean 178 ekitaldi egin direla zerrendatu dute, batez beste, urtean, 89 ekitaldi. Udalak antolatu ditu 107 ekitaldi eta elkarteek 63. Datu horiek oinarri, balorazio orokorra da



Shirley Davis 2019ko Blues Hotsak jaialdian.

"ekitaldi asko" antolatzen direla, "onak eta askotarikoak".

Osterantzean, Soraluzeko datuek, orokorrean, bat egiten dute EAEko datu orokorrek erakusten duten erretratuarekin; hala, adibidez, Soraluzen programatzen den kultura ekitaldien artean gehienak dira musikarekin lotutakoak: 29 -herriko eta auzoetako jaietan zein Gaztetxean egiten direnak ez daude aintzat hartuta kopuru horretan-.

23 pelikulatik 3 euskaraz

Hizkuntzari dagokionez,

"berbazko" ekitaldirik gehienak

euskaraz antolatu dira, 55, eta 29 gazteleraz. Ikusi da bereziki euskaraz umeendako programatzen dela, eta helduentzako eskaintzaren erdia pasa gaztelaniaz dela. Kasu horretan, adibidez, pisu handia zinematik hartzen du, 23 pelikulatik 3 bakarrik izan baitira euskaraz.

Gazteentzakoak faltan

Osterantzean, irakurketa kritikoagoa eginez, besteak beste, honako hutsuneak detektatu ditu diagnostikoak: antzerkiaren arloan, transmisioari edo formazioari dagokionean, hutsunea sumatzen da (taldea, eskola...); dantza gutxi programatzen da; herriko kultur ondarearen transmisiorako ekitaldiak falta dira; haur edo familiei zuzenduta apenas antolatzen da ezer eta tailer/ikastaro eskaintza handitu beharko litzateke (argazkilaritza, teknologia berriak, sukaldaritza, antzerkia...).

Bestalde, publiko motaren arabera, desoreka sumatu dute eskaintzan, batik bat 14-24 urtekoei begira ez delako ia ekitaldirik programatzen; halaber, ikusi da etorkinengana ez dela eskaintzarik iristen, nahiz eta herrian geroz eta gehiago izan.

Azkenik, besteak beste, genero ikuspegia, antolatzaileen artean saretzea zein kultur ekitaldiak antolatzeko espazioen analisisa ere egiten ditu diagnostikoak.

Genero ikuspegiari dagokionez, "balorazio egokia" egiteko "nahikoa datu" izan ez arren, bai azpimarratu dute urte osoan zaindu behar dela, "ez bakarrik martxoaren 8aren edo azaroaren 25aren bueltan".

Saretzearen beharrari dagokionez, berriz, uste dute komenigarria dela, saretzeak, besteak beste, publiko berriak sortzeko balio baitu.

Eta espazioari dagokionez, oro har, ikusi da antzokia ez diren bestelako espazioak ere aprobetxatu beharko liratekeela ekitaldiak antolatzeko -elizatari, SAPAko aterpe berria, kapilla... eta, udaberritik aurrera kalean gehiago antolatu beharko liratekeela.

Segidako orrietan, kulturaren, gaur egungo kultur eskaintzaren eta bestelakoen gaien gainean galdetu diegu gaian adituak diren 'Su festak' liburuaren egile Jon Urzelairi zein Gaztelupeko Hotsak zigituko Ubane Uzin soraluzetarrari.

Ekitaldi motak

Diziplinak horrela banatu dira:

- Haurrentzako zinea: **13**
- Helduentzako zinea: **24**
- Dokumentalak: **9**
- Musika: **29**
- Bertsoa: **4**
- Jaiak: **24**
- Helduentzako antzerkia: **13**
- Haurrentzako antzerkia: **6** (5 eskola orduetan)
- Pailazoak: **6**
- Magia: **2**
- Pintura: **8**
- Literatura: **12**
- Argazkia: **10**
- Dantza: **9**

"Kontsumorako gauza bihurtzen ari da kultura"

JON URZELAI 'SU FESTAK' LIBURUAREN EGILEA

Fisikaria, soziologoa eta musikazalea da Jon Urzelai (Zumarraga, 1990). 2023an 'Su festak' liburua argitaratu zuen, Euskal Herriko XXI. mendeko musika jaialdiak hizpide. Euskadi Saria jaso zuen, euskarazko saiakera kategorian. Musika jaialdiez, erakunde publikoen paperaz, 'fomo' edo 'sold-out' joeraz aritu da.

Zer dago sold out -dena salduta- eta fomo- bizipen bat galtzearen beldurra-fenomenoen atzean?

COVIDaren ondotik indartu da ikuskizun handien sukarra. Arrazoi asko daude. Batetik, sare sozialen egiteko moldea: dena da oso azkarra, oso handia eta, azkar iraungitzen bada ere, mundu osoa gauza berari begira ari da une berean; hor egon nahi du jende guztiak. Bestetik, kontsumorako gauza bihurtzen ari da kultura, ikuskizun hutsa, eta horretarako diseinatutako aretoetan dago eskaintza. Botere metaketa bat ere badago, industria kultural bat zehazten duena zirkuito bat eta badirudi derrigorrez zirkuito horretan sartu behar duela artistak, bestela ez duelako ogibidea ziurtatzerik. Gizartean gauza bera ari da gertatzen: klase ertaina desagertzen ari da; erraldi batzuk eta herri xehea ditugu. Kulturen, dena den, erraldoiek ere ahal dutena egiten dute; gehiago da irudi bat, ez dudalako uste artistak aparretan bizi direnik.



Kontzertu historikoen ugaritzeak badu zerikusirik?

Ez da gauza bera 40 urtean kontzerturik eman gabe zegoen taldearen itzulera edo artifizialki sortutako FOMOen kontua. Musikan artista bat urtebeteen kontzerturik eman gabe egotea normala da, baina iragartzen dute azken kontzertua emango dutela eta saltzen dute galdu ezinekotzat. Eta badirudi funtzionatzen duela, ikusleak egon behar duela sentitzen duelako eta artistak ere halakoak ekoitzi beharra sentitzen duelako. Beraz, batzuk historikoak dira eta beste batzuek izan nahi dute. Xabier Leteren azken kontzertua

"AIPUA BEHERAINO BETE
AIPUA BEHERAINO BETE
AIPUA BEHERAINO BETE
AIPUA BEHERAINO

Errenteriako kiroldegian izan zen. Pentsa zer izango zatekeen gaur. Edo ikusi Benito Lertxundi nola erretiratu den. Hor ere ikusten dira garai bakoitzaren egiteko moldeak. Baina, bai, gaur egun ezerk ez du garrantzirik eta, era berean, ikaragarritzko garrantzia dauka denak.

Diru publiko asko bideratzen da ekitaldi masiboentzat, baina herritik herriarentzat sortutakoentzat?

Eztabaida horretara bideratu beharko genuke. Gauza bat dira kontsumo-ohiturak eta norberak zer bilatzen duen eta beste bat administrazio publikoak zertara bideratzen duen denon dirua. Kultura oso dago bideratuta turismoarekin lotuta dauden ekintzetara eta musikaren industria horretarako bitarteko moduan ulertzen da. Badago halako miopia bat; administrazioak merkatu-terminoetan bakarrik ulertzen du kultura. Txosnei Ticket bai eskatzeak, traba burokratiko geroz eta handiagoak jartzeak... adierazten dute kultura zer den ahazten ari garela. Industria kulturala beharrezkoa da, baina ezin da hori bakarrik izan. Euskal Herrian herritik herriarentzako egindako kultur sare osasuntsua mantentzen dugu oraindik, eta ezinbestekoa da. Ez da onuragarria kultura merkatu-terminoetan bakarrik ulertzea eta iruditzen zait, geroz eta gehiago, hortara goazela. Era berean esango nuke kultur politikak ez daudela artistei begira eginak, baizik eta ekitaldi handiak eta ikusgarritasuna sustatzera begira. Euskal Herria mapan kokatzeko mantra hori!

"Ezin da ahaztu kultur ekintzek gizartea eraikitzen dutela"

UBANE UZIN ARGARATE GAZTELUPEKO HOTSAK

Ubane Uzin Argarate (Soraluze, 1969) Gaztelupeko Hotsak zigiluaren arduradunetako bat da. Diskoak grabatzeaz gainera, artistendako kontzertuak antolatzeko programatzaile ere ibiltzen dira. Besteak beste, gauzak herri txikietan egin ahal izatea erreibindikatzen dute eta beste irizpide batzuekin programatzea.

Soraluzen, bi urtean, 178 ekitaldi kultural daude Udalaren bilketaren arabera. Hori zelan baloratzen duzu?

Kuantifikatzerako orduan bereizi beharko litzateke herriko elkarteetako eguneroko dinamika eta kultur programazio ofiziala.

Zure ustez, zelakoa izan beharko litzateke herri bateko programazio kulturala?

Herriek badituzte beren elkarteak eta dinamika propioak. Udalaren ardura, herriaren errealitateari kasu egin, eta kultur irizpide eta helburuekin norabide bat ematea eta laguntzea izan beharko litzateke. Horrek benetako kohesio soziala eta kultur ekitateari lagunduko lioke.

Zer proposatuko zenuke Soraluzerendako?

Egokia litzateke helburu bat izango duen ibilbide malgu bat markatzea, gaur egungo kultur programazioaren erronkei modu eraginkorrean erantzuteko. Garrantzitsua da kultur jarduna ez ulertzea jarduera solte eta

zatatuen metaketa gisa, baizik eta norabide bat duen estrategia moduan. Hutsuneak -egotekotan- kontuan hartzen ez diren publikoetan, jorratzen ez diren gaietan edo iristen ez diren formatuetan egon daitezke. Ikuspegi hori

horretarako, ezinbestekoa da konfiantza: norabidea partekatzeko, irizpideak azaltzeko, eta elkarrekin eraikitzeko

Esaten da Euskal Herrian tradizioz kontrakulturala izan den eskaintza aldatu egin



Ubane Uzin kiroldegi gaineko terrazan.

udaletxetik abiatu beharko litzateke. Kultur politikan norabide bat ezartzen denean, herriak erantzuten du. Eta

"EGOKIA LITZATEKE
HELBURU BAT IZANGO
DUEN IBILBIDE MALGU
BAT MARKATZEA"

"KULTUR POLITIKAN
NORABIDE BAT EZARTZEN
DENEAN, HERRIAK
ERANTZUTEN DU"

dela; horrela uste duzu?

Bai, uste dut kontrakultura horrek izan zuen oinarri sare hori asko murriztu dela. Lehen, talde hasiberriek gaztetxeetan edo taberna txukunetan jotzen zuten, eta horrek beren burua aurkezteko eta gastuak estaltzeko aukera ematen zien. Nik hori zuzenean bizi izan dut. Gaur egun, ordea, dena formalki egin behar da: baimenak, fakturak, araudiak... eta horrek konplexutasun handia dakar.

Horrek zer ondorio ekar dezake?

Bi ondorio nagusi ikus daitezke. Batetik, sare alternatiboa gutxituta, espazio horiek guztiak desagertu dira. Lehen, sortzaile berriek beren bidea egiteko ekosistema bat zuten: espazio independenteak lehenengo geltoki bezela; kultur etxeak eta txosnagune handiagoak bigarren urrats; eta handik hiriburuetak antzokiak eta jaialdi handiak. Tarteko espazio horiek proiektu propioa zuten eta sortzaileentzat funtsezkoak ziren. Gaur egun, jada ibilbidea duten artistek betetzen dituzte toki horiek. Horren atzean kultur politikak daude —zer, non, nola eta norekin programatzen den—. Eta sarritan, ez da sumatzen ikuspegi bateraturik, ezta epe luzerako norabiderik ere. Gainera, askotan lehenesten dira kanpoko taldeak tokiko euskarazko proposamenen aurretik, nahiz eta arrakasta bera izan. Irizpide ekonomikoek bestelako helburuek estaltzen dituzte.

Kulturklik-en datuen arabera, EAEn, kultura ekitaldi asko baina modu desorekatuan banatuta daude. Batik bat hiriburuetan edo herri handietan egiten dira. Eta gero eta gehiago makrora goaz, baita erakundeen aldetik ere; egoera horretan, zelan kokatzen da Gaztelupeko Hotsak?

Gaztelupeko Hotsak 1995etik ari da kulturgintzan, eta gaur egun ere leku askotan badugu gure lekua; kontatzen dute gurekin eta errespetuz hartzen gaituzte. Azken urteetan, orde, gero eta nabarmenagoa da kultura-eskaintzaren egiturak eta baliabideak zentralizatzeko



joera. Testuinguru horretan, herrietako kultur egiturek zailtasun handiagoak dituztela aipatzen da. Joera hau ez da kasualitatez gertatzen. Kultur politikek markatutako ibilbideek ekarri dute egoera hau, eta horrek eragiten dio tokiko kulturaren orekari eta gertutasunari.

Zure ikuspuntutik zer eskatuko zenuke?

Erantzukizuna eta birplanteatzea eskatuko nuke. Kultur politikan nagusi den zentralizazioa —hiriburu eta makroegituretan oinarritua— birpentsatu behar da. Komunitatea hiriburuetatik

"GURE ASMOA DA HERRITIK ETA HERRIAREN ZAT EGINEZ JARRAITZEA"

"HERRIEK ERE IZAN BEHAR DUTE SORKUNTZARAKO ETA ZABALKUNDERAKO AUKERA"

kanpo ere badago, eta egungo planteamenduek gizartearen zati bat kultur aukeratik kanpo uzten dute. Herrietako eragileek jardueren atzean helburuak eta zentzua jartzeko ardura dute. Kultur ekintzek gizartea eraikitzen dute, eta hori ezin da ahaztu.

Txikitik txikira egiten duzue lan; Blues Hotsak jaialdia da horren adibidea; seguru baduela plaza handiago batera salto egiteko aukera, baina...

Eskaintza izan dugu plaza handiagora salto egiteko, baina guk tokian tokikotik lan egitearen aldeko apustua egin nahi izan dugu. Herri periferikoek ere izan behar dute kultur sorkuntzarako eta zabalkunderako aukera. Gaur egun, edozein herri bihur daiteke kultur jardueretarako gune egoki, baldintza teknikoek edo logistikoek mugak jar ditzaketan arren. Soraluzek baditu erronkak, batez ere espazioaren aldetik: antzokia txikia da, eta aukera batzuk mugatzen ditu. Hala ere, iazko ekimenek erakutsi zuten kanpoko espazioetan ere kalitatezko ekitaldiak antola daitezkeela. Gure asmoa da bide horri jarraitzea, herritik eta herriarentzat eginez.

Zer ematen dio Blues Hotsak moduko jaialdi batek Soraluzeri?

Jaialdiak beste zirkuitu bat ekartzen dio Soraluzeri. Iazko kanpoko kontzertuak oso ondo hartuak izan ziren, eta jende askoren esker ona jaso genuen. Poliki-poliki, jaietatik kanpoko hitzordu berezia bihurtzen ari da Blues Hotsak jaialdia herriko zein kanpoko publikoarentzako.

Jubiletak garaiezin

JOKATUTAKO HIRU FUTBITO TXAPELKETAK IRABAZITA, LAUGARRENAREN BILA DOAZ

TESTUA: ANDER GOMEZ

70. hamarkadan sortu zen Jaietako Futbito Txapelketa. Frontoian hasieran eta gerora kiroldegian jokatu, 2012. urtean futbol 7 modalitatera eta Ezoziko futbol zelaira pasa zen. Pandemiaren ostean, Aranera ekarri zuten bueltan eta talde mitikoetako kide ugari parte hartzeko gogoz agertu ziren berriz, tartean: Supertorpedos, Artifices eta Fronton Team-ekoak. Talde zaharrak berreskuratzeko lagun nahikorik ez zutenez, elkartu eta talde berria eratzea erabaki zuten.

Izen bila

Txapelketaren historian zehar izen xelebreak egon dira. Batzuk kuadrillen izenak (Eusko Label, Kastakuak) edo tabernenak (Bar Intxixu, Gaztetxea) erabili dituzte; bestetzuk, hitz-joko bihurriagoak bilatu dituzte (Kosto de Marfil, Real Coholicos). Hauen kasuan, txapelketa beteteranoak izanda eta —oraindik gazte izan arren— jokalaria nagusienetakoak zirenez gero, umorearen aldeko apustua egin eta "Jubiletak" jarri zioten.

Hiru urteetan garaile

2022an estreinatu eta txapelketa eskuratu zuten, Salabardo talde gaztearen kontra finala irabazita. 2023an



2022ko finalaren osteko talde argazkia, Salabardo txapeldunordeekin. EGOITZ UNAMUNO

ere garaile irten ziren, aurreko urteko ligaxkan sailkatu ez baina Kopa irabaztea lortu zuen Aribiransa taldearen kontra. Iazko finalean, aurkari berbera izan zuten —orduan Nothingan Miedo izenpean— eta hirugarrenez lortu zuten garaipena.

Azken hiru urte hauetan irabaztea lortu duten arren, guztietan nahikoa lan egin behar izan dutela diote: "partida asko eta asko oso parekatuak eta borrokatuak izan dira". Gainera, gero eta

gehiago konplikatzen ari da txapelketa. Alde batetik, aurreko bederatzi taldetik hamalau izatera pasa dira; bestetik, denboraren eragina ere sumatzen hasiak direla diote: "Ikusten dugu urtetik urtera, gazteen mesederako dena, guretzat kaltegarri izan daitekeela".

Sailkapenean lehenengo

Aurtengo emaitzek, ordea, ez dute hori islatzen: B multzoan jokatzeko ari dira eta lidergoa dute 12 punturekin; jokatuak bost partidetatik, lau irabazi dituzte eta bakarra galdu; eta 35 gol egin dituzte (orain arteko gol kopururik handiena multzo biak kontuan hartuta). Hori bai, atzetik gertu daukate Union Futbol Sala, 10 punturekin, 33 gol eginda eta partida bat gutxiago jokatu.

**"URTEAK AURRERA
DOAZ, ETA HORREK
GAZTEEN MESEDETAN
ETA GURE KONTRA
JOKATZEN DU"**

Ligaxka amaitzear da eta uztailean jokatuko dira Liga eta Kopa. Multzo bakoitzeko lau talde onenek Liga jokatuko dute eta azken hirurek Kopa. Jubiletak sailkapeneko lehen postuan egon arren, dauzkaten 12 puntu horrek berdindu ditzakete oraindik B multzoko beste talde batzuk (Kastakuak, LCE) eta baita gainditu ere (Union Futbol Sala, Salabardo). Zapatu honetan daukate ligaxkako azken hitzordua, Salabardoren kontra, eta dena eman beharko dute, azken orduko ezustekorik izan ez eta Ligara sailkatzeko.

Laugarren titulua helburu

Momentuz, egindako lanarekin “gustura eta pozik” daude Jubiletak, eta, zailtasunak zailtasun, “laugarrenaren bila” doazela diote.

Jaietako txupinazoaren osteko finalera ailegatu edo ez, berriz ere txapelketa irabazi edo ez... garbi dago futbitoarekiko eta bertan sortzen den giroarekiko duten pasioa, eta bultzada horrek lasai asko mantendu ditzake Jubiletak urte luzez txapelketan, behin benetako erretiroa hartuta ere.



2023ko final ostekoa, Aribiransa taldearekin. UBANE MADERA ZANGITU



lazko finalekoa, Nothingan Miedorekin. UBANE MADERA ZANGITU



**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

LAGUNTZA DEIALDI BEREZIA

**Gipuzkoa
Aliantzan 2025**

www.kutxafundazioa.eus



Jaietarako gertu San Andresen

UZTAILAREN 11TIK 14RA EGINGO DITUZTE SAN ANDRESKO JAIAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ UNAMUNO

Jaiak ate joka dira San Andresen eta dagoeneko gertu daukate lau egunetarako egitaraua. Ohikoa den moduan, uztaileko bigarren zapatuan egingo dituzte eta barikuan abiatuko dira, makala altxatu eta kanpaiak jota.

Zapatuan, Fan&Go

Herritarrei zuzendutako ekitaldian zapatuan abiatuko dira III. Patata Tortila lehiaketarekin eta dagoeneko, bertan parte hartzeko izen-ematea zabalik dute 699 749 813 telefonoan. Ostera, zapatu arratsaldean espero dute jenderik gehien, Asier eta Iñakiren Omenezko Pilota Txapelketaren finalean eta, batez ere, zezenetan. Gaueko erromerian ere ohikoa baino jende gehiago espero dute, aurten, erromeria Fan&Go talde "mitikoak" girotuko du eta.

Domekan, zezena

Domekan, eguerdiko 12:30ean, abiatuko da egitaraua Mezarekin. Ostean, eskuz binakako pilota partiduak izango dira eta Aitor Mendiluze



Harrijasotzaileak iaz San Andresko plazan.

eta Iker Zubeldia bertsolarien emanaldia. Arratsaldean, berriz, izetatarrek prestatutako herri kirol erakustaldia eta ostean, bola premia eta zezenak.

Astelehenean, auzotarrei zuzendutako ekitaldiak egingo dituzte.

**ZAPATU ATSALDEAN
ESPERO DUTE
JENDERIK GEHIEN,
PILOTAKO FINALEAN
ETA ZEZENEAN**

Egitaraua

Uztailak 12, zapatua

- 17:30ean Pilota finalak
- 19:30ean Zezenak
- 00:30 Erromeria (Fan&Go)

Uztailak 13, domeka

- 13:00etan Pilota partiduak
- 18:00etan Herri kirolak
- 19:30ean Zezenak



Ikus egitarau osoa
Plaentxia.
eus-eko
agendan

BELAI TZ
NEKAZAL ETA
INDUSTRI HORNIGAIK



Makinaria
salmenta eta
konponketa



San Andresko jai batzordeko kideak jaietako kartela eskutan.

"Jendeak estimatzen du eskaintzen dugun jai giroa"

OIER CERREJON ETA ENAITZ ORUESAGASTI JAI BATZORDEKO KIDEAK

San Andresko jai batzordeak duela hiru hilabete ekin zion aurtengo jaietako egitaraua prestatzeari. Oierrek eta Enaitzek parte hartzen dute bertan, elkarteko beste hainbat bazkiderekin batera. **Zer nabarmenduko zenukete aurtengo egitarauan?**

Azkenenego urtetan antzeko egitaraua izaten dugu. Aurtun ere pentsatu dugu zezenak ipintzea bi egunetan, zezenek adin guztietako jende asko erakartzen dutelako. Domeka eguerdiko mezak baino gehixeago...

Zapatu gaueko erromeria ere pixkat diferentea izango da aurtun, Fan&Go taldearekin. Pentsatzen dugu erromeria klase horrek gazte gehiago erakarriko duela.

Bestalde, zapatuan Pelota Txapelketako finala ere

jokatuko da eta horrek jendea asko ekartzen du. Gainera, gero, hogeita hamarren bat laguneko koadrila geldituko da afaltzen eta horrek itxuratzen du mahai buelta.

Jatorduek pisu berezia dute San Andresen.

Bai. Zapatuan eta domekan asko ematen da jaten eta ahalegintzen gara janari diferenteak eskaintzen, plateretan eta ogitartekoetan. Egun horietan bost-zortzi lagunek jarduten dute sukaldean eta dezenteko lana izaten da. Diru pixkat ere ateratzen da eta pozik.

Gainera, komeni da esatea jakirik gehienak, haragia,

"ZAPATU GAUEKO ERROMERIA PIXKAT DIFERENTEIA IZANGO DA FAN&GO TALDEAREKIN"

fruta, ogia eta beste hainbat herriko komertzioetan erosten ditugula, batetik, kalitatezko produktuak nahi ditugulako eta bestetik, herriko dendariei eskertu nahi diegulako ematen diguten laguntza.

Dirua ateratzeko egiten dituzue beste ekimen batzuk ere.

Bai, derrigorrezkoa da. Jaien egitaraua ordaintzeko diru asko behar da. Aurtun ere atera ditugu errifak, bilatu ditugu babesleak eta zorionez urtetik urtera gehiago dira, barrak ere ematen du zerbait eta udaletik jasotzen dugun laguntasunarekin, moldatzen gara. Bihotzez eskertu nahi dugu laguntza hori dena.

Horrez gain, elkarteko bazkideek eta zenbait auzokideek borondatezko lan asko egiten dugu baina dena gustura. Geuk gozatzea da gakoa urte askoan jarraitzeko. **Zein da gehien gozatzen duzuen momentua?**

Momentu eder asko daude: barikuan makala altxatu eta elkarrekin txanpan botila zabaltzen duguneko; zapatu gauean afaritan frontoia beteta ikustea; astelehenekoa ere berezia izaten da, etxekoak bakarrik, lanerako presiorik gabe... Orokorrean, jaietan ederrena izaten da ikustea jendeak erantzun egiten duela. San Andresko jaiak egiten diren egunetan beste jai handi batzuk ere egiten dira: Iruñeako San Ferminak, Amañako jaiak... Hala ere, jendea etorri egiten da hona. Horrek esan nahi du jendeak estimatzen duela hemen eskaintzen dugun jai giroa.

ZORION AGURRAK



Ibai Soriano Sebal
Ekainaren 27an 6 urte. Zorionak Ibai! Ondo ondo pasau ta patxo haundi bat familiaren partez. Besarkada erraldoia!



Zaloa Garcia Rodriguez
Ekainaren 24an, 17 urte. Jarraitxu irribarre horrekin danori zipristintzen. Izugarri maixxe zaitxugu. Julen eta Saran partez.



Paule Oñederra Ostolaza
Ekainaren 25ean, 10 urte. Zorionak Pauletxo! Neska handixa in zara! Patxo handi bat etxeko danen partetik.



Enaitz Diaz
Ekainaren 4an 40 urte. Zorionak! Oso ondo ospatu eguna. Etxekoan partez.



Loli Nievas eta Mireia Lamariano
Ekainaren 20an eta 21ean. Zorionak etxekoan partez.



Kika Garcia Ramirez
Ekainaren 3an 90 urte. Zorionak amama, etxekoan partez



Laia Gallastegi Nogales
Ekainaren 23an, 2 urte. Zorionak printzesa, muxu handi bat familiaren partez. Bereziki Oihanen partez.



Lide Viciosa Garitano
Ekainaren 21ean 12 urte. Zorionak Lide! Egun politta izan.

ESKELAK

ESKELA



Jose Francisco Oregui Pintado
'Ercilla'



2025eko ekainaren 4an hil zen, 72 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Beti egongo zara gure bihotzetan.
Asko maite zaitugu.

Etxekoak.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

- Hildakoak**
Concepcion Carballo Carballo
Maria Concepcion Iraolagoitia Mendive
Jose Blas Cifuentes Gomez
Josefina Zubizarreta Gabilondo
- Jaiotakoak**
Rachida Nour Aalouach Khabab
Nia Isabella Santiago Suarez



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Vascos de Administradores de Empresas



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen-bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko jabe bat ez dago ados obra batzuk egiteko, etxeja-been batzar batean hartutako erabakiarekin. Azken batzarrean komunitate-buruari eskatu zion obra hori egiteko onartu eta sinatu den aurrekontua. Baita bere jabetzari dagokion eta ordaintzeko dagoen kopurua azaltzen duen akta ere. Jakin nahi nuke presidenteak derrigorrez eman behar al dion dokumentazio hori.

Legearen azken berrikuntzak saiatzeko dira komunitateetan zorraz saihesten. Arauen arabera, bilera hastean, komunitate kuotak ordaindu gabe dituztenek, deliberoetan parte hartu ahal izango dute, baina ezingo dute batzarrean hartzen diren erabakietan botorik eman. Arau honen neurria boto eskubidea mugatzea baino ez da, ez ordea beste eskubide batzuk galaraztea, esaterako, komunitateko informazioa jasotzeko dagokiona. Beraz, ez presidenteak ezta komunitateak ere ezin dio etxejabe bati debekatu batzarrean hartu eta aktan jasotako akordioen berri jasotzea.

AHOLKUA: Lege erregulazio honekin, erabakiak hartzean baztertu egingo da komunitatearen baitan oinarritzeko obligazioak (komunitate kuotak ordaintzea) betetzen ez dituen jabe hori.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67



IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 613



Kontugest
GROUP

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

www.kontugest.com

MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosiariak



Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99



Txoko

Eguneko menuak,
plater konbinatuak,
harburenak,
ogitariekak,
nabakak,
piztak,
gosiak...

Enkarguak agian dira
Tel. 943 75 17 88

SORALUZE
Mendiola ind. 13
Soraluze

476 556 817 - 943 75 21 38




ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen,
pertsianak,
ateak, barandilak
salmenta eta korponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bazter Ertoko Kalea 2 • 20500 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

BOLIA
TABERNA



Pirxoak, aridak,
konbinatuak
Gazte-giruko festa



OTELLA HARTZEGIA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Ebako tripaiki, txistoma,
salbitxa eta mingaina

Estabimendua 3
Telefonoa: 943 75 23 75



Soraluzeko
Kooperatiba Elkarteak
1910ak etxak

Arraindegia, janaria,
erapag, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Astelehenerdik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 12:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarran 4
Tel.: 943 75 13 45

MABEL
ILUPAINDEGIA



- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Erribal 1
Tel.: 943 75 14 89

Belarrak
lana eta belardarrenda



Elkagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua
Santa Ana 22
943 75 30 11

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA



arunta
dekoratiboa
industriala

Tel. 943 75 13 24 • Mug. 652 77 70 30



Almar
ILUPAINDEGIA

Ilupaindegia
Estetika
Solariuma



Gaztebarrak 4, Ibaeta
Tel.: 943 75 13 13 - 642 11 14 04



HNOS. BENITO
ANAIK
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurritara egindako altzariak...

Santa Ana, 26 • Tel.: 943 75 20 47

Euskalzaletasunaren alde:

aras



laibi
ELECTRICIDAD

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42